



Gernika

1937-04-26



The New York Times

Historic Basque Town Wiped Out;
Rebel Fliers Machine-Gun Civilians

Swarms of German-Type Planes Fling Thousands of Bombs
and Incendiary Projectiles on Guernica, Behind Lines, as
Priests Bless Peasants Filling Town on Market Day

Euzko Deya
LA VOZ DE Euzkadi - LA VOIX DES BASQUES

LES BOCHES
ILS ONT DETRUIT
GUERNIKA

Noticia de Euzkadi
GUERNIKA DESTRUIDA
POR EL ESPANTOSO BOMBARDEO
DE LA AVIACION ALEMANA

Pág.


SARRERA INTRODUCCIÓN

4



GERNIKAKO ARBOLA ÁRBOL DE GERNIKA

6



GERRA ESPERIMENTUAK EXPERIMENTOS DE GUERRA

8



1937KO APIRILA ABRIL DE 1937

10



BABESLEKUAK REFUGIOS

12



GERNIKAKO ASTEROKO AZOKA EL MERCADO SEMANAL DE GERNIKA

14



ESPERIMENTU MILITARRA UN EXPERIMENTO MILITAR

16



“ERNE, ERNE, KATEAK DATOZ ETA!” “¡ALERTA QUE VIENEN LAS CADENAS...!”

18



ASTRA BABESLEKUA REFUGIO DE ASTRA

20

Argazkien kredituak
Créditos de las fotografías: Gernikako Bonbardaketaren Dokumentazio Zentroa, Archivo General de la Administración (AGA) Walter Weiss, Fuerza Aérea Italiana Archivo Histórico, Archivo General Militar de Ávila.

Texturen kredituak
Créditos de los textos:
Xabier Irujó



BONBARDAKETAREN FASEAK FASES DEL BOMBARDEO

22



IZUA ZABALTZEKO BONBARDAKETA GERNIKA BOMBARDEO DE TERROR

24




ANDRA MARIAKO BABESLEKUA REFUGIO DE LA CALLE ANDRA MARÍA

26



INSTITUTUA INSTITUTO

28



“SUAK ERAGINDAKO AGONIA” “AGONÍA DE FUEGO”

30



BONBARDAKETAREN ERAGINA BABESLEKUETAN EFECTOS DEL BOMBARDEO EN LOS REFUGIOS

32



KARMELE DEUNA OSPITALEA HOSPITAL KARMELE DEUNA

34



GEZURRA AGINDU BAT IZAN ZEN LA MENTIRA FUE UNA ORDEN

36



PICASSOREN “GUERNICA” EL “GUERNICA” DE PICASSO

38



GERNIKA, BAKEAREN HIRIA GERNIKA, CIUDAD DE LA PAZ

40

1936ko uztailaren 18an, Emilio Mola, Jose Sanjurjo, eta geroago Francisco Franco, buruzagi zirela, militar talde batek estatu kolpea antolatu zuen, ostean 1936ko gerra ekarriko zuena.

Francok eta Molak laguntza militarra eta estrategikoa eskatu zieten beraien aliatu naturalei, Oliveira Salazar, Hitler eta Mussoliniri. Guztiek eskaini zieten laguntza eta, gainera, Hitler-ek agindu zion Hermann Goering jeneralari Condor Legioaren sustraia izango zen aireunitatea bidaltzea.

Condor Legioaren sorrerarekin batera, Hitler-ek Hermann Goering jenerala Lau Urteko Plana delakoaren zuzendari izendatu zuen; bulego edo saila horren helburua zen Alemania prestatzea 1936-1940 urte bitarteko "hurrengo gerra"-rako. Halatan, bada, Condor Legioaren helburu nagusia zen gerra estrategia berriak esperimentatzea, batez ere terrore bonbardaketak, eta Bigarren Munduko Gerran hegazkinak erabakiorrak izango zirela erakustea.

Matxinatuen hegazkinek esperimentu zelaitzat hartu zuten Gernika, Euskal Herriko, Kataluniako eta Espainiako beste hainbat hiri bezala.

Gernika 1937ko apirilaren 26a baino lehen.



Gernika antes del 26 de abril de 1937.



El 18 de julio de 1936, un grupo de militares liderados por los generales Emilio Mola, José Sanjurjo y posteriormente Francisco Franco orquestaron el golpe de estado que desembocó en la guerra de 1936.

Franco y Mola solicitaron ayuda militar y estratégica a sus aliados naturales, Oliveira Salazar, Hitler y Mussolini. Todos ellos accedieron a enviar ayuda y Hitler encargó al entonces general Hermann Goering que preparara el envío de la unidad aérea que daría origen a la Legión Cóndor.


Coincidiendo con la creación de la Legión Cóndor, Hitler nombró a Goering director del Plan de los Cuatro Años, una oficina que prepararía a Alemania para la "próxima guerra" entre 1936 y 1940. La principal misión de la Legión Cóndor era por tanto experimentar nuevas estrategias de guerra, fundamentalmente bombardeos de terror, y demostrar que la aviación sería el arma decisiva en el curso de la Segunda Guerra Mundial.

Gernika, al igual que muchas otras localidades vascas, catalanas y españolas se convirtió así en el campo de prueba de la aviación rebelde.

GERNIKAKO ARBOLA

1936ko urriaren 7an Jose Antonio Agirrek Euskadiko Gobernuko lehenengo Lehendakari karguaren zina egin zuen Gernikako harizpean.

Eusko Jaurilaritzaren egoera zaila zen. Donostia okupatu ondoren, Emilio Mola jeneralaren tropek Araba eta Nafarroa kontrolatzen zuten eta Bilborantz zihoazen. Ordura arte Euskadin 150 bonbardaketa egon ziren eta ehunka hildako zeuden. Bederatzi hilabete geroago, agintari matxinatuak 1.000 bonbardaketa baino gehiago egin zituen euskal lurretan. Matxinoek kontrolatutako eremuetan 7.848 gudari eta milaka zibil hil zituztela erregistratu da. Presoak ere milaka izan ziren eta erbesteratutako 150.000 izatera heldu ziren, horien artean 32.000 adingabe.



El 7 de octubre de 1936 Jose Antonio Agirre juró su cargo de primer Lehendakari del Gobierno de Euskadi bajo el roble de Gernika.

Tras el golpe de estado de julio de 1936 la situación del gobierno vasco era difícil. Habiendo ocupado Donostia, las tropas del general Emilio Mola controlaban Araba y Navarra y avanzaban hacia Bilbao. Hasta ese día el País Vasco había sufrido 150 operaciones de bombardeo y los muertos se contaban ya por centenares. Nueve meses después, el mando rebelde, a las órdenes del general Franco, había ejecutado más de 1.000 operaciones de bombardeo en suelo vasco. Se registraban 7.848 gudaris muertos y miles de civiles asesinados en las zonas controladas por los rebeldes. Los presos también se contaban por miles y el número de exilados alcanzó los 150.000, entre ellos 32.000 menores de edad.

ÁRBOL DE GERNIKA

Testigantza

"Etsaiek konkistatzeko eskubidea lotsagabekeria handiz argudiatu dute. Beti ukatuko dugu. Lurraldea konkistatu dute; Euskal Herriaren arima ez, ordea. Ongi jardun dugu; gure jokaera ez da azken orduan ere aldatu. [...] Euskal Herriak ilusioz ikusten du etorkizuna; geurea da bere arima".

(Jose A. Agirre)



Testimonio

"Con absoluto descaro invocan nuestros enemigos el derecho de conquista. Lo negamos para siempre. El territorio habrá sido conquistado; el alma del Pueblo Vasco, no; no lo será jamás. Hemos obrado noblemente; nuestra conducta no ha variado ni siquiera a última hora. [...] El Pueblo Vasco mira el futuro con ilusión; su alma nos pertenece".

(Jose A. Agirre)



GERRA-ESPERIMENTUAK

Wolfram von Richthofenen zeregin nagusia euskal frontean bonbardaketa sistema berri bat garatzea izan zen. Richthofen egunero joaten zen fronte-lerrotik gertu zegoen goragune batera bonbardaketak behatzera. Posizio haietatik oharrak hartzen zituen etorkizuneko bonbardaketen ondorioak hobetzeko.



La principal tarea de Wolfram von Richthofen en el frente vasco fue desarrollar un nuevo sistema de bombardeo. Todos los días Richthofen acudía a una elevación cercana a la línea de frente para observar los bombardeos. Desde aquellas posiciones tomaba notas para aumentar los efectos de futuros bombardeos.



EXPERIMENTOS DE GUERRA

Hamar minututan Motxotegi mendiko posizioetara 60 tona bonba jaurtitzearen eragina ikusi ondoren, konturatu zen eraginkorragoa zela denbora-tarte zabalago batean bonba kopuru bera jaurtitzea, bonben azpian denbora gehiago mantenduz tropen moralak ahultzen zelako. Gerrako presoak elkarrizketatu ondoren konturatu zen horretaz.

Arratsaldeetan, matxinoen eskuetan erortzen ari ziren herrietan bonbardaketen ondorioak ikustera joaten zen.

Elkarrizketak egiten zituen eta oharrak hartzen zituen bonbardaketaren teknika hobetzeko; 250 kiloko bonbek eraikin bateko sei solairu zulatzeiko gai zirela ikusi zuen, eta kale estuetan bonben eragina handiagoa zela, deflagrazioak eragindako airearen presioaren ondorioz. Ohartu zen eraikinen azpian eraikitako babeslekuak ez zirela seguruak, sarrera erraz buxatu zezaketelako hondakinek.

Babesleku hauek ezingo zirela suntsitu ondorioztatu zuen, baina tranpa hilgarri bihurtu zitezkeen.

Tras observar el efecto de lanzar 60 toneladas de bombas en apenas diez minutos sobre las posiciones del monte Motxotegi, descubrió que era más efectivo lanzar la misma cantidad de bombas en un lapso temporal más extenso, porque más tiempo bajo las bombas minaba mucho más la moral de las tropas. Lo supo tras entrevistar a prisioneros de guerra.

Por las tardes acudía a observar los efectos de sus bombardeos en las localidades que iban cayendo en manos de los rebeldes.

Efectuaba entrevistas y tomaba notas para mejorar la técnica de bombardeo. Se percató que las bombas de 250 kilos eran capaces de horadar hasta seis plantas de un edificio y que en calles estrechas el efecto de las bombas era mayor debido a la presión del aire expelido por la deflagración. Observó que los refugios construidos bajo los edificios no eran seguros, ya que la entrada podía ser fácilmente obstruida por los escombros.

Concluyó que estos refugios no podrían ser destruidos, pero podían convertirse en trampas mortales.

Richthofenek arreta berezia eskaini zien Durango, Eibar eta Gernikako bonbardaketei.

Durangon 50 kiloko jaurtigai apurtzaile italiarrak 1.000 metroko altueratik jaurtitzea agindu zuen. Hiribildua okupatu ondoren, egiaztatu zuen bonbardaketek teilatuaren eta etxebizitzaren goiko solairuaren egitura kaltetu zutela.

Eraikin guztien % 55 suntsitu zela kalkulatu zuen.

Eibarren, Richthofenek 100 kiloko jaurtigai apurtzaile italiarrak erabiltzea agindu zuen, lau solairu zeharkatu eta sotora iristeko gai zirenak. 600 metrotatik 800 metrotara izandako erasoek Durangon baino emaitza hobeak eman zituzten. Italiako bomba su-emaileek teilatuetako, altzarietako eta goiko solairuetako zurezko egiturak suntsitzea lortu zuten, baina eraikin askok ez zuten eraginik izan suteagatik, aurreko bonbardaketen ondorioz suntsipen maila altua zegoelako.

Suntsipen-maila % 60koa izan zen.

Richthofen prestó especial atención a los bombardeos de Durango, Eibar y Gernika.

En Durango ordenó lanzar proyectiles rompedores italianos de 50 kilos desde 1.000 metros de altura. Tras la ocupación de la villa, comprobó que los bombardeos habían afectado la estructura del tejado y del piso superior de las viviendas.

Calculó que se había destruido el 55% de todas las edificaciones.

En Eibar, Richthofen ordenó utilizar proyectiles rompedores italianos de 100 kilos capaces de atravesar cuatro pisos y alcanzar el sótano. Repetidos ataques desde cotas de 600 a 800 metros dieron mejores resultados que en Durango. Las bombas incendiarias italianas lograron destruir las estructuras de madera de los tejados, el mobiliario y los pisos superiores, pero muchos edificios no se vieron afectados por el fuego dado el elevado grado de destrucción en el que se hallaban debido a bombardeos anteriores.

El grado de destrucción alcanzado ascendió al 60%.

Gernika izan zen suntsipenaren epitomea. Richthofenek bonbardaketaren teknika hobetu zuen, Alemaniako 250 kiloko bomba leherkorren koktel bat 800 metroko altueran jaurtita, eta kilo bateko su-eragileak (gutzizkoaren % 65 eta % 85 artean).

250 kiloko jaurtigaiek kaltetutako eraikinak erabat erori ziren, eta gainerakoak su eragileek erre zituzten, eraikinen % 85 erabat suntsituta.

Eusko Jaurlaritzak 1.654 hildako erregistratu zituen. Gainera, Jose Labauria alkateak, Andra Maria aterpean 450 pertsona hil zirela erregistratu zuen.

Gernika fue el epítome de la destrucción. Richthofen mejoró la técnica de bombardeo mediante el lanzamiento a 800 metros de altura de un coctel de bombas explosivas alemanas de 250 kilos e incendiarias de un kilo (las cuales representaban entre un 65% y 85% del total).

Los edificios afectados por los proyectiles de 250 kilos se desplomaron totalmente y el resto los quemaron las incendiarias, logrando la destrucción total del 85% de las edificaciones.

El Gobierno Vasco registró 1.654 muertos. Además, el alcalde José Labauria registró que 450 personas perdieron la vida en el refugio de Andra Maria.



BABESLEKUAK

1937ko apirilaren 26an matxinoen hegazkinek 600 bonbardaketa baino gehiago egin zituzten euskal lurretan.

El 26 de abril de 1937 la aviación rebelde había ejecutado más de 600 operaciones de bombardeo en suelo vasco.

Gernikako alkatea zen Jose Labauriak udal arkitektoa zen Castor Uriarteri herriko zonalde estrategikoetan babesleku antiaereoak eraikitzeko enkargua egin zion. Guztira 12 eta 16 babesleku artean zeuden (horietatik sei amaitu gabe), publiko eta pribatuak, tamaina ezberdinekoak, 3.000 pertsona inguru sartzeko.

El alcalde de Gernika Jose Labauria encargó a Castor Uriarte, arquitecto municipal, la construcción de refugios antiaéreos en zonas estratégicas de la villa. Había un total de entre 12 y 16 refugios (seis de ellos sin terminar) públicos y privados de diverso tamaño con capacidad para unas 3.000 personas.



REFUGIOS

Testigantza "Bonbak erori egiten ziren. Zalaparta jasanezina zen. Busturiako mutil batek esan zigun hortzen artean zerbait jartzeko, ahoa ez ixteko. Nik giltzak erabili nituen. Izugarria zen. Hautsa eta kea babeslekuan sartzen ziren. Mundu guztia ikaratuta zegoen. Emakumeek oihu eta negar egiten zuten. Nik ezin nuen arnasa hartu. Orduan bonba handi bat erori zitzaigun gainera. Astindua sentitu genuen. Teilatua apurtu zuen eta ura gure gainera erortzen hasi zen. Zoratuko nintzela uste nuen".

(Pasealekuko babeslekuetako batean egon zen emakumea)

Testimonio "Ahora las bombas caían. El estruendo era insoportable. Un chico de Busturia nos dijo que nos pusiéramos algo entre los dientes para no cerrar la boca. Yo usé mis llaves. Era horrible. El polvo y el humo entraban en el refugio. Todo el mundo estaba en estado de pánico. Las mujeres gritaban y lloraban. Yo no podía respirar. Entonces una bomba grande cayó sobre nosotros. Sentimos la sacudida. Resquebrajó el techo y empezó a caer agua sobre nosotros. Creí que me volvía loca".

(Mujer en uno de los refugios de Pasealeku)



GERNIKAKO ASTEROKO AZOKA

Merkataritza eta hornikuntza sailaren 1937ko urtarrilaren 30eko aginduaren arabera, udalek azoketara "ahalik eta nekazari eta kontsumitzaile gehien joatea erraztu eta gomendatzeko" betebeharra zuten. Euskadiko Gobernuak errefuxiatuak Bilbotik Gernikara trenean joatea antolatu zuen, hirian ez zituzten elikagaiak erosteko.

En virtud de la orden del departamento de comercio y abastecimiento de 30 de enero de 1937, los ayuntamientos tenían la obligación de "facilitar y recomendar la mayor concurrencia" de agricultores y consumidores a los mercados. El Gobierno de Euskadi organizó el traslado en tren de refugiados de Bilbao a Gernika para adquirir los alimentos de los que carecían en la ciudad.



EL MERCADO SEMANAL DE GERNIKA



Testigantza

"Zorigaiztoko egun hori, apirilaren 26a, azoka eguna zen, eta hiria jendez lepo zegoen. Egun horretan inguruko milaka baseritar bildu ziren Gernikan (...). Hegazkin horiek gidatzen zituzten basatiek, kalean edo hiritik kanpo gizaki bat ikusten zuten bakoitzean metrailatu egiten zuten, izua eta heriotza eraginez eta jende ugari hilez, horien artean emakume, haur eta adinekoak. Hori izan zen Gernikako tragedia, nik, Gernikako alkate moduan, mundu osoaren aurrean egiaztatzen dudana egia".
(José Labauria)

Testimonio

"Ese día fatal, 26 de abril, era día de mercado, y la ciudad estaba llena de gente. Ese día se habían reunido en Gernika miles de campesinos de los alrededores (...) . Las fieras que pilotaban aquellos aviones, cada vez que veían en las calles o fuera de la ciudad una figura humana, volvían sus ametralladoras sobre ellas, sembrando el terror y la muerte y, asesinando no pocos, entre ellos mujeres, niños, y ancianos. Tal fue la tragedia de Gernika, una verdad que yo, el alcalde de Gernika, afirmo ante el mundo entero".
(José Labauria)

ESPERIMENTU MILITARRA



Gernika dentsitate altuko "Koppelwurf" bonbardaketa metodo berria probatzeko bonbardatu zuten, eremu zehatz baten barruan botatako bomba lehergarri eta su-eragile kopurua handituz. Geroago, Emilio Mola jeneralaren aginduz, herria erasoaren efektuak aztertzeke itxi zen. Hondakinak aztertu ondoren, Wolfram von Richthofenek adierazi zuen erasoak "arrakasta tekniko itzela" izan zela. Castor Uriartek baieztatu bezala, "Egia esan bonbardaketan suntsitutako izaera militar garrantzitsuko ezere berri ez daukat"

Gernika fue bombardeada para poner a prueba el nuevo método de bombardeo "Koppelwurf" de alta densidad mediante el aumento del número de bombas explosivas e incendiarias lanzadas dentro de un área determinada. Posteriormente, la villa fue cerrada para estudiar los efectos del ataque por orden del general Emilio Mola. Una vez examinadas las ruinas, Wolfram von Richthofen afirmó que el raid había sido "un completo éxito técnico". Tal como afirmó Castor Uriarte, "La verdad es que no sé de nada de carácter militar significativo que fuera destruido en el bombardeo".

Suntsitutako Gernikako airetiko argazkia.
Fotografía aérea de Gernika destruida.



UN EXPERIMENTO MILITAR



Herriko eraikinen %85 erabat suntsitu zituzten. Bonbardaketa kirurgikoa izan zen, herriaren hiri-eremuan bakarrik eragina izan zuena, suntsitu nahi zutena, hain zuzen (lerro gorriaren barruan dagoena). Trenbidetik hamar metro eskasetik hiri erdialderaino guztia suntsitu zuten, eta bide beretik hamar metrora, kanpoaldera, sektore industrialean, ez zen ezer gertatu. Pasealekuko mendebaldeko zuhaitzek hostoak osorik mantendu zituzten, eta ekialdekoak erabat kiskali ziren.

El 85% de los edificios de la villa fueron totalmente destruidos. Fue un bombardeo quirúrgico que afectó exclusivamente al área urbana de la villa, que era lo que se pretendía destruir (área interior de la línea roja). Apenas diez metros desde la vía del ferrocarril hacia el centro urbano todo fue destruido, mientras que diez metros hacia el exterior de dicha vía, el sector industrial no sufrió impacto alguno. Los árboles de la parte oeste del Pasealekua conservaron intactas sus hojas mientras aquellos situados al este fueron totalmente calcinados.

“ERNE, ERNE, KATEAK DATOZ ETA!”

Hans J. Wandel-ek Heinkel He51 hegazkin bat pilotatu zuen Gernika gainetik apirilaren 26 hartan eta hauxe zioen: pilotu guztiek jaso zutela agindua “mugitzen zen guztia metrailatzeko”. Segunduko 7.94 mm-ko 40 bala jaurtitzeko gai ziren MG 17 motako bi metrailadoraz gain, bonbardaketan parte hartu zuten Heinkel He51 hegazkinak ahal zuten eraman hamar kiloko sei bomba, hiria bonbardatzeko “lanetan” laguntza eskainiz.

Hans J. Wandel, que pilotó un Heinkel He51 sobre Gernika aquel 26 de abril, afirmó que todos los pilotos habían recibido orden de “ametrallar desde el aire cuanto se moviera”. Además de dos ametralladoras MG 17 que podían disparar 40 balas de 7,92 mm por segundo, los Heinkel He51 que participaron en el bombardeo podían cargar hasta seis bombas de diez kilos, colaborando asimismo en las labores de bombardeo de la villa.



TdeG lantegi barrua. Alerta kasuan zer egin iragartzeko kartela.
Interior de la fábrica TdeG. Cartel informativo, cómo proceder en caso de alerta.

“¡ALERTA, QUE VIENEN LAS CADENAS...!”



Testigantza “Bi hegaletako ehiza-hegazkinetako pilotuak ikus zitezkeen, oso baxu egiten zuten hegan eta. Jendea metrailatzen zuten, Gernika barruan zein hiria kanpoaldean. Hauspez etzanda geratzen zirenak ere metrailatu egiten zituzten, hil plantak eginda geldirik. Babeslekuaren faltan, soluzio bakarra zen gora begira bakar-bakarrik etzatea. Horrela egin nuen bonbardaketak iraun zuen denbora guztian, Astra arma lantegitik hur. Dena zen sarraskia eta ikara, guztiak ehiza-hegazkinetatik ihesean; ezustean erasotzen zuten, hiru ehiza-hegazkineko lerroetan, eta horregatik deitzen genien ‘katea’. Milaka pertsona hildako izan ziren egun hartan Gernikan, baina Astra arma lantegia ez zuten ukitu ere bonbek” (Joxe Iturria).

Testimonio “Se podía ver a los pilotos de los cazas biplanos de lo bajo que volaban. Ametrallaban a la gente, tanto dentro de Gernika como en las afueras de la villa. Aquellos pilotos ametrallaban a todos por igual, militares y civiles. Ametrallaban también a aquellos que se tumbaban boca abajo, haciéndose los muertos. La única solución, a falta de un refugio, era tumbarse solo, boca arriba. Así permanecí durante todo el tiempo que duró el bombardeo, cerca de la fábrica de armas de Astra. Todo era destrucción y pánico, todos huyendo hostigados por los cazas, que atacaban de improviso, formando una fila de tres cazas a la que llamábamos ‘cadena’. Miles de personas perdieron la vida aquel día en Gernika pero la fábrica de armas Astra no fue tocada por las bombas” (Joxe Iturria).

ASTRA BABESLEKUA

Astrako babeslekua 1936ko irailean eraiki zen "Talleres de Guernica" eta zonaldeko beste lantegietako langileak babesteko.

El refugio de Astra fue construido en septiembre de 1936 para dar cobijo a los trabajadores de Talleres de Guernica y otras fábricas de la zona.

Babeslekua errekuperatu eta publikoki ireki zen "Astra, Unceta y Cía" lantegiko pabilioi zaharra eraitsi ondoren, 2005ean. Hormigoizko eraikuntza hau teilatu faltsu baten azpian ezkutatuta zegoen, horrela, pilotuek aietik ezin zuten jakin babesleku bat zela.

El refugio fue recuperado y abierto al público después de la demolición del primitivo pabellón de la fábrica Astra, Unceta y Cía en 2005. Esta construcción de hormigón estaba de modo que los pilotos no podían ver desde el aire que se trataba de un refugio.



EL REFUGIO DE ASTRA

Erasoan parte hartu zuten hegazkinak Gasteiz, Burgos eta Soriako aerodromoetatik atera ziren. Junkers Ju52, Heinkel He111, Dornier Do17 eta Savoia-Marchetti SM79 bonbaketariak ziren, Heinkel He51, Messerschmitt BF109 eta Fiat Cr32 ehiza-hegazkin eta lurrean erasotzeko hegazkinekin batera. Lasarten zeuden Iparraldeko Aire Indarretako hegazkinak ere parte hartu zuten Gernikako aire argazkiak ateratzen.

Los aviones que participaron en el ataque partieron de los aeródromos de Gasteiz, Burgos y Soria. Eran bombarderos Junkers Ju52, Heinkel He111, Dornier Do17 y Savoia Marchetti SM79 además de los cazas y aviones de ataque a tierra Heinkel He51, Messerschmitt BF109 y Fiat Cr32. Los aviones de las Fuerzas Aéreas del Norte estacionados en Lasarte también participaron tomando fotografías aéreas de Gernika.



BONBARDAKETAREN FASEAK

George L. Steer The Times egunkariko kazetariak esan zuen moduan, eraso fase ezberdinetan egin zen:

1. Sei bonbaketari eta ehiza-hegazkin batzuek bonbardaketa ertaina egin zuten herritarrek ohartarazteko eta babeslekuetara joateko denbora emateko; horietako asko, udaletxekoa edo Andra Marikoa, esaterako, tranpa hilgarri bihurtuko ziren. Ur-biltegia suntsitu zen, bonbardaketaren ondoren suhiltzaileen ekintza eragozteko.
2. Gero, ehiza-hegazkinek kate formazioan eraso zuten, hiribilduaren gainean biribilean hegan eginez eta herrigunetik ihes egiten zutenak metrailatuz.
3. Ondoren, Ju52 Junkerrek "Koppelwurf" motako bonbardaketa erabili zuten, iparraldetik hegoaldera, bomba suntsitzaile eta su-eragileen nahasketa bat jaurtiz, hiribildua hondakin bihurtu zutena.
4. Lurra erasotzeko hegazkinen zirkulu bat osatu zuten berriz, hildako gehiago sortzeko.

Tal como lo describió el corresponsal del rotativo The Times, George L. Steer, el ataque se produjo en varias fases:

1. Se realizó un bombardeo inicial mediante seis bombarderos y algunos cazas para alertar a la población y darle tiempo a acudir a los refugios, muchos de los cuales, como el del ayuntamiento o el de Andra Mari, se iban a convertir en trampas mortales. Se destruyó el depósito de agua para impedir la acción de los bomberos tras el bombardeo.
2. Posteriormente los cazas atacaron en cadenas, volando en círculo sobre la villa y ametrallando a aquellos que escapaban del núcleo urbano.
3. Seguidamente los Junkers Ju52 ejecutaron un bombardeo Koppelwurf, de norte a sur, lanzando una mezcla de bombas destructoras e incendiarias que redujo la villa a escombros.
4. Se volvió a crear un círculo de aviones de ataque a tierra, causando aún mayor mortandad.

FASES DEL BOMBARDEO

Condor Legioaren ingenieroak, Joachim von Richthofenek esan zuen bezala, Junkers Ju52-ek 31 tona bomba gutxienez bota zituzten, baina zenbaketa horretan ez dira aintzat hartu ehiza-hegazkinek jaurtitako bonbak eta bonbaketarietatik eskuz jaurtitako su-kutxak.

Bonbardaketa herriko eremu zibilean eta egoitza eremuan zentratu zen, ospitaleak barne. Zonalde industrial, arma-fabrikak, trenbidea eta zubia, ez ziren erasotuak izan. Hori dela eta iraun du babesleku honek.

Tal como relató el ingeniero y oficial de la Legión Condor, Joachim von Richthofen, se lanzaron al menos 31 toneladas de bombas desde los Junkers Ju52, pero este cómputo no incluye las bombas lanzadas por los cazas y las cajas de incendiarias lanzadas a mano desde los bombarderos.

El bombardeo se centró en la zona civil y residencial de la villa que incluía los hospitales. La zona industrial incluyendo las fábricas de armas, la vía de ferrocarril y el puente no fueron atacados y quedaron intactos. Es por ello por lo que este refugio permanece en pie.



IZUA ZABALTZEKO BONBARDAKETA

Bonbardaketaren helburu estrategikoa ikaratzea eta herriarren eta milizien moral suntsitzea izan zen. Horregatik, bonbardatu eta hurrengo egunean matxinoen agintaritzak Eusko Jaurlaritzaren errendizioa eskatu zuen, Gernikan egindako bonbardaketa beste udalerrietan egitearen mehatxuarekin. Francoren hitzetan: "Gudak dakarren suntsiketaren eramaile izango gara bihar".

El objetivo estratégico del bombardeo fue sembrar el terror y quebrar la moral de la población civil y de las milicias por lo que un día después del bombardeo el mando rebelde exigió la inmediata rendición del Gobierno Vasco bajo la amenaza de extender bombardeos como el de Gernika a otras localidades. En palabras de Franco: "Mañana seremos portadores de la destrucción que aparece la guerra".



GERNIKA, BOMBARDEO DE TERROR

Testigantza "Hegazkinek gure gainean bueltak ematen zituzten. Gure bila ari zirela ematen zuen. Eta egia zen: lau emakumeren bila ari ziren [...]. Bat batean karraska izugarria entzun genuen: baserrian bonba bat erori zen. Dardarak lurrera bota ninduen harri eta adreilu artean. Alaba nagusia, hogeita zazpi urtekoa, momentuan hil zen, zapalduta. Beste alabak, gazteenak, ezkontzera zihoanak, eskua hartu zidan, apur bat estutu eta esan zuen: "¡Ay!". Hasperen egin zuen eta niri begira hil egin zen".

(María Olabarria)



Testimonio "Los aviones daban vueltas y vueltas por encima de nosotros. Parecía que nos buscaban. Y era verdad: buscaban a cuatro mujeres [...]. De pronto oímos un crujido espantoso: sobre el caserío cayó una bomba. La trepidación me lanzó al suelo en medio de piedras y ladrillos. Mi hija mayor, que tenía veintisiete años murió instantáneamente, aplastada. La otra, la más joven, que se iba a casar, tuvo tiempo de cogerme la mano, apretarla un poco y exclamar: "¡Ay!". Dio un suspiro, y con los ojos clavados en mí, murió".

(María Olabarria)



ANDRA MARIAKO BABESLEKUA

Andra Mariako babeslekuak 40 metroko luzera eta 3,65 metroko zabalera zuen, eta Artekale eta Barrenkaletik sartzen zen.

El refugio de Andra Maria tenía 40m de largo y 3,65m de ancho y entradas por Artekale y Barrenkale.

Amaitu gabe zegoen eta 250 kiloko bomba erori zitzaion gainera, eta alboko eraikinak bertan errefuxiatutakoen gainean erori ziren. Ondoren 50 kiloko bomba su-egile eta leherkor ugari erori ziren. José Labauria, Joxe Iturria eta Augusto Barandiaran, babesleku horretan bizirik zeudenak erreskatatzen egon zirenak, denak hil zirela esan zuten, 500 pertsona inguru.

Estaba sin terminar y una bomba de 250 kilos impactó sobre el mismo, derribando los edificios contiguos sobres los allí refugiados. Después cayó una lluvia de bombas incendiarias y explosivas de 50 kilos. José Labauria, Joxe Iturria y Augusto Barandiaran, que estuvieron sobre dicho refugio procurando rescatar a los supervivientes, afirmaron que murieron todos, unas 500 personas.



REFUGIO DE LA CALLE ANDRA MARIA

Testigantza "Hegazkinak gero eta hurbilago entzuten nituen. Neskari hurbildu nintzaion eta negarrik ez egiteko esan nion, dena ondo aterako zela. Hegazkinen zarata gero eta handiagoa zen eta neskak esan zidan bere bi anaiak justu gure gainean zegoen etxean utzi zituela, bat haurtxo bat zela, eta euren bila joatearen beldur zela. Horregatik egiten zuen negar".
(Sebastián Uria)

Testimonio "Podía escuchar los aviones cada vez más cerca. Me agaché junto a la chica y le dije que no llorara, que todo iba a estar bien. El ruido de los aviones se hacía cada vez más y más fuerte y luego la niña me dijo que había dejado a sus dos hermanos, uno de ellos apenas un bebé, en la casa que estaba justo encima de nosotros y, que ella había tenido miedo de ir a por ellos. Por eso lloraba".
(Sebastián Uria)



Carmelo Echegaray Bigarren Hezkuntzako Institutu Mistoaren suntsipenak ikasgelarik gabe utzi zituen Busturialdeko gazte asko, eta, hortaz, hezkuntza jasotzeko aukerarik gabe. Hirian ez zen euskara klaserik emango diktadorea hil zen arte, 1975ean, eta 1949an agindu ere egin zen Gernikako hilerriko hilarrietako euskarazko inskripzioak ezabatu zitezela, haien ordez gaztelaniazkoak jartzeko.

La destrucción del Instituto Mixto de Segunda Enseñanza Carmelo Echegaray dejó a muchos de los jóvenes de Busturialdea sin aulas ni posibilidad de educación. No se darían clases en euskara en la villa hasta la muerte del dictador en 1975 y en 1949 incluso se ordenó que se borrasen las inscripciones en euskara de las lápidas del cementerio de Gernika y que fuesen sustituidas por otras en castellano.



Testigantza José Ramón Urtiaga eta Antxon Zabalia gudariak lehenengo Heinkel He51 ikusi zuten Burgoganatik, Gernika bonbardatzen eta metrailatzen. Bomba haiek Don Tello kalean jo zuten, tren geltokitik berrehun metrora: "berehala ikusi genuen hegazkina. Oso behean egiten zuten hegan, geu geunden lekutik behera, hiriaren gainetik biribilean. Eserita geunden, hari begira. Orduan, bomba batzuk jaurti zituen geltokitik gertu. Halaber, jendea metrailatzen ere hasi zen. Horrek harritu gintuen. Hegazkinak jarraitu zuten, biribil handi bat eginez, eta hegoalderantz desagertu zen gure bistatik". (José Ramón Urtiaga).

Testimonio Los gudarís José Ramón Urtiaga y Antxon Zabalia vieron el primer Heinkel He51 bombardear y ametrallar Gernika desde Burgogana. Aquellas bombas impactaron en la calle Don Tello, a escasos doscientos metros de la estación de tren: "Enseguida vimos el avión. Volaba muy bajo, por debajo de donde nosotros nos encontrábamos y volaba en círculos sobre la villa. Estábamos sentados observándolo. Entonces, echó unas bombas cerca de la estación. También empezó a ametrallar a la gente. Eso nos sorprendió. El avión continuó describiendo un amplio círculo y desapareció de nuestra vista hacia el sur". (José Ramón Urtiaga).

“SUAK ERAGINDAKO AGONIA”

Gernikakoa su-bonbardaketa izan zen, milaka bomba su-egile jaurtiz sute handi bat sortu zuena.

El de Gernika fue un bombardeo de fuego que generó una inmensa hoguera mediante el lanzamiento de miles de bombas incendiarias.

Aurrerago, lur-erasorako hegazkinak, hirigunearen inguruan zirkuluan hegaz eginez, herritar gehienak “superimetroaren” barruan mantendu zituzten airezko metrailaketaren bidez. Beraz, eztandak edo metrailadorea zirela eta hil ez zirenak itota edo hondakinen artean kiskalita hil egin ziren.

Tras el ataque de los bombarderos, los aviones de ataque a tierra volando en círculo alrededor del centro urbano, mantuvieron al grueso de la población dentro del “perímetro de fuego” mediante el ametrallamiento aéreo de forma que aquellos que no murieron a causa de las explosiones o de las ráfagas de ametralladora, perdieron sus vidas asfixiados o calcinados bajo las ruinas.



“AGONÍA DE FUEGO”

Testigantza “Neskatoa bizirik zegoen, baina eztandak sabelaldea urratu zion eta hesteak kanpoan zituen. Begiak irekita zituen eta laguntza eske ari zela ematen zuen [...]. Bera besarkatzen ari nintzen hegazkin berrien zarata entzun nuenean. Atzera begiratu eta ikusi nituen. Hiru motorreko hegazkin alemaniar bonbaketari izugarri horiek ziren. Baxu hegaz egiten zuten eta gugana zetozen. Buelta erdia eman eta neskari begiratu nion berriro. Hilda zegoen”.
(Juan Sistiaga)

Testimonio “La niña estaba viva, pero su abdomen había sido desgarrado por la explosión y sus intestinos colgaban fuera de su cuerpo. Tenía los ojos abiertos y parecía estar suplicando que le ayudase [...]. Yo estaba todavía abrazándola cuando oí el sonido de nuevos aviones. Miré hacia atrás por encima del hombro y los vi. Eran esos grotescos bombarderos trimotores alemanes. Volaban bajo, y venían directamente hacia nosotros. Me di media vuelta y volví a mirar a la chica. Había muerto”.
(Juan Sistiaga).



BONBARDAKETAREN ERAGINA BABESLEKUETAN

Richthofenek aurreikusi bezala, babesleku batzuk hondakinen azpian lurperatu zituzten, bertan aterpe bila joan zirenei larriki eraginez

- Andra Maria kaleko babeslekua, 250 kiloko bonba baten kolpe zuzena jaso zuena, hondoratu egin zen eta bertan zeuden pertsona gehienak bertan hil ziren.
- Kalibre handiko bonba batek udaletxea jo zuen, eta eraikin horrek kolapsoa eragin zuen sotoan zegoen babeslekuan. Sarrera lau orduz egon zen buxatuta eta leherketaren ondorioz sabaitik eroritako kaskoteek hainbat persona zauritu zituzten. Baina, sorospen-taldeek ekintza azkarrari esker, tunel bat ireki eta bizirik zeuden pertsonak ateratzea lortu zen.

Tal como había previsto Richthofen, algunos refugios fueron enterrados bajo las ruinas, afectando gravemente a los que habían buscado cobijo en los mismos.

- El refugio de la calle Andra Maria, que recibió un impacto directo de una bomba de 250 kilos, se hundió y murieron en el acto la mayoría de las personas que se hallaban en él.
- Una bomba de gran calibre impactó en el ayuntamiento, provocando el colapso de dicho edificio sobre el refugio que se encontraba en el sótano. La entrada al mismo quedó obstruida durante aproximadamente cuatro horas y varias personas resultaron heridas por los cascotes que cayeron del techo debido a la explosión. Pero, gracias a la rápida acción de los equipos de socorro, se logró abrir un túnel y sacar con vida a los supervivientes.

EFFECTOS DEL BOMBARDEO EN LOS REFUGIOS



- Potentzia handiko bonba batek eztanda egin zuen "Plaza de la Union"-eko (gaur egungo Pasealeku Plaza) babeslekuen gainetik igarotzen den kalean, ur-hoditeria lehertuz eta eztandaren azpian zeuden babeslekuetan filtrazioak sortuz. Baina babesleku horrek, metro batzuk lur azpian, ez zuen amore eman, eta hara aterpe bila joan zirenak bizirik atera ziren.
- Una bomba de gran potencia explotó en la calle que pasa por encima de los refugios de la Plaza de la Unión (actualmente Pasealeku Plaza), reventando la línea de agua y produciendo filtraciones en alguno de los refugios que se encontraban inmediatamente debajo del lugar del impacto. Pero dicho refugio, varios metros bajo tierra, no cedió, y los que allí buscaron cobijo sobrevivieron.
- Astrako babeslekua, arma fabrikatik hurbil zegoelako, ez zen erasotua izan.
- El refugio de Astra, por hallarse cerca de la fábrica de armas, no fue atacado.

KARMELE DEUNA OSPITALEA

Igande goizean, Karmele Deuna ospitaleko hamar ohe soilik zeuden okupatuta, baina igande arratsaldetik aurrera paziente ugari hasi ziren iristen. Apirilaren 26ko goizean –astelehena-, Markinako fronteko zaurituek ospitaleko ehun oheak zituzten okupatuta. Bonbardaketak iraun zuen bitartean, medikuek agindu zuten sotoa behin-behineko gorputegi gisa erabiltzeko. Ez zegoen argindarrik, kandela bakar batzuk baino ez. Keak dena estaltzen zuen. Bonbardaketaren hasieran zazpi gorpu zeuden han, baina amaieran lurzorua gorputzez josita zegoen, baita sarreraren ondoan ere. Eta libre geratzen zen lekua ospitalera iristen jarraitzen zuten zaurituentzat erabili behar zen.

El domingo por la mañana tan solo diez de las camas del hospital de Karmele Deuna estaban ocupadas pero a partir del domingo por la tarde comenzaron a llegar numerosos pacientes. La mañana del lunes 26 de abril los heridos del frente de Markina habían ocupado las cien camas del hospital. Durante el bombardeo los médicos ordenaron utilizar el sótano como morgue provisional. No había electricidad, sólo unas pocas velas. Un manto de humo lo cubría todo. Había siete cuerpos ahí abajo al comienzo del bombardeo pero al final el suelo estaba cubierto de cuerpos, incluso cerca de la entrada. Y el espacio libre tenía que ser utilizado para los pacientes heridos que continuaban llegando al hospital.



HOSPITAL DE KARMELE DEUNA



Testigantza

“Leiho guztiak apurtuta zeuden bonben leherketagatik, eta behin baino gehiagotan ikusi nuen hautsa leihoetatik sartzen, eta metrailadorearen balak sentitu nituen lurzorua jotzen, leihoetatik harago. Gure medikuak, ospitalean egun hartan zeuden mediku guztiek bezala, ahal zuen guztia egiten zuen zaurituen alde. Baina hain tresna gutxi zuten lan egiteko. Gainera, bere tragedia pertsonala pairatu behar izan zuen [...]. Hiru urteko neska bat artatzen egon ostean, gudari bat sartu zen eta bazter batera deitu zuen. Ezin izan nuen entzun gudariak zer esan zion. Baina medikua itzuli zen eta neskaren zauria bendatzen amaitu zuen. Geroago arte ez zigun esango bere anaia hil berria zela esan ziotela (Karmele Deuna ospitaleko erizain baten testigantza).

Testimonio

“Todas las ventanas se habían roto a causa del estallido de las bombas, y varias veces vi el polvo penetrando por las ventanas y sentí las balas de ametralladora golpeando contra el suelo, más allá de las ventanas. Nuestro médico, al igual que todos los médicos en el hospital aquel día, hacía todo lo que podía por los heridos. Pero tenía tan poco con lo que trabajar. Además, tuvo que sufrir su propia tragedia personal [...]. Había estado tratando a una niña de tres años de edad cuando un gudari entró y lo llamó a un rincón. No pude oír lo que el gudari le dijo. Pero el médico regresó y terminó de vendar la herida de la niña. No fue hasta más tarde, cuando [nos dijo] que se había enterado de que su hermano acababa de morir (testimonio de enfermera del hospital de Karmele Deuna).

GEZURRA AGINDU BAT IZAN ZEN

Apirilaren 27ko goizaldean Franco jeneralak Gernika bonbardatua izan zela ukatzeko agindua eman zuen, eta "ihes egin aurretik gorriek hirigune guztiak erre eta suntsitzeko sistema basatia" salatzen. Erregimenaren komunikabideek berria eman zuten eta hori izan zen diktaduraren bertsio ofiziala 1975era arte.

La madrugada del 27 de abril el general Franco ordenó que se negara que Gernika hubiese sido bombardeada y que se denunciase "el feroz sistema de los rojos de quemar y destruir todos los centros urbanos antes de retirarse". Los medios informativos del régimen reprodujeron la noticia y esta fue la versión oficial de la dictadura hasta 1975.



LA MENTIRA FUE UNA ORDEN

Testigantza "Francok munduari esan zion bere hegazkinak ez zirela egun horretan atera eguraldi txarra zela eta. Nik egin zutela diotsot munduari. Ikusi nituen. Nire bi lagunek ikusi zituzten. Gernikako sei mila herritarrek ikusi zituzten. [...] Gernikako hondakinen artean egon nintzen erasotzaileek alde egin eta ordu bete geroago. Noraezean ibili nintzen: hiria sutan zegoen. Zelaietan metrailadore balen markak zituzten gorpuak ikusi nituen. Bizirik atera ziren hogeit edo hogeita hamar pertsona elkarizketatu nituen. Denek istorio berdina kontatu zuten. Hitz egin ahal zutenek, behintzat". (Noel Monks)

Testimonio "Franco dijo al mundo que sus aviones no volaron ese día debido al mal tiempo. Yo digo al mundo ahora que sí volaron. Yo los vi. Mis dos colegas los vieron. Seis mil habitantes de Gernika los vieron. [...] Estuve entre las ruinas de Gernika una hora después de que los atacantes hubieran hecho su trabajo. Vagué a través de sus ruinas hasta donde pude: toda la ciudad estaba en llamas. Vi cuerpos en los campos marcados por balas de ametralladora. Entrevisté a veinte o treinta supervivientes. Todos contaban la misma historia. Los que podían hablar". (Noel Monks)



PICASSOREN "GUERNICA"

Picassok Guernica margotu izan ez balu 1937ko apirilaren 26an gertatutakoa ezezaguna izango zela esan ohi da.

Se ha dicho que si Picasso no hubiese pintado el Guernica nadie sabría hoy lo que ocurrió el 26 de abril de 1937.

Baina errealitatea ezberdina da. Picassok Parisen bere lehendabiziko margolana aurkeztu aurretik, bombardaketaren berria Europa eta Amerika osotik hedatu zen. Picassok margotutako koadroan egindako heriotzaren irudikapenean hildako animaliak gehitu zituen merkatuan: "Gero merkatuan ibili ginean oinez. Espero dut inork sekula ez ikusi behar izatea guk orduan ikusi genuen moduko egoera beldurgarriak. Animaliak hilda, animalien zatiak lurlean zehar sakabanatuta zeuden, pertsonen gorpuekin nahastuta". (Mercedes Iralaren testigantza)

Pero la realidad es otra. Antes de que Picasso expusiera su lienzo por primera vez en París, la noticia del bombardeo se había reproducido a todo lo largo de Europa y América. La imagen de la muerte que Picasso representó en su cuadro incluyó a los animales muertos en el mercado: "Luego caminamos por el Ferial. Espero que nadie tenga jamás que ver nada tan horrible como lo que vimos allí. Los animales muertos, y los pedazos de animales, estaban esparcidos por el suelo, mezclados con los cuerpos humanos". (Testimonio de Mercedes Irala)



EL "GUERNICA" DE PICASSO

Testigantza "Zer uste duzu dela artista bat? Margolaria bada begiak besterik ez dituen inozoa, edo belarriak, musikaria bada, edo bihotzaren ganbera bakoitzean lira bat poeta bada, edo giharrak bakarrik boxeolaria bada? Ez, izaki politikoa da, munduan gertatzen diren gauza lazgarrien, sutuen edo miresgarrien berri duena, bere buruari horien irudiaren arabera forma ematen diona. Nola izan daiteke beste pertsonetikiko interesik ez izatea, eta euren bizitzak modu hotz horretan alde batera uztea? Ez, margolanak ez dira etxeak apaintzeko eginak. Gerra-instrumentu bat dira". (Pablo Picasso)

Testimonio "¿Qué crees que es un artista? ¿Un imbécil que solo tiene ojos, si es un pintor, u oídos si es músico, o una lira en cada una de las cámaras del corazón si es un poeta, o incluso, si es un boxeador, solo músculos? Nada de eso, es un ser político, constantemente al tanto de las cosas desgarradoras, apasionadas o maravillosas que suceden en el mundo, que se da forma a sí mismo por completo a imagen de las mismas. ¿Cómo es posible no sentir ningún interés por otras personas, y con una fría indiferencia desprenderse de la vida que traen de forma tan abundante? No, la pintura no está hecha para decorar apartamentos. Es un instrumento de guerra". (Pablo Picasso)



GERNIKA, BAKEAREN HIRIA

Telesforo Monzon euskal ministroak adierazi zuen bezala, Gernika gure hiria zen, baina bombardaketak bake eta askatasunaren sinbolo unibertsal bihurtu zuen, orain gizon-emakume guztiek jasoko dutena, eta guk, Gernikako herritarrok, bakearen nazioarteko sinbolo bihurtzeko lan egingo dugu.

Tal como afirmó el ministro vasco Telesforo Monzón, Gernika era nuestra ciudad, pero el bombardeo la convirtió en un símbolo universal de la paz y de la libertad que ahora hereda toda la humanidad y nosotros, el pueblo de Gernika, trabajaremos para hacer de ella un símbolo internacional de la paz.



GERNIKA, CIUDAD DE LA PAZ



Testigantza

"Historian lehenbiziko aldiz Bizkaian odolaren eta klase gudaren legea inposatu da. Uste dut, eta historiak hala erakutsiko digu, jazarpen honek ez duela betiko iraungo. Bost ozeano bortizetan mendeetako borroka eta abenturak bizi izan ostean Euskal Herria indar erreserba amaigabea duen herri bihurtu dute, isilean [...]. Sustrai sakonak ditu, eta leinu zaharra, baina hostoak berdeak dira eta urtero berritzen den bertutea dute; klaserik gabeko gizarte baten bizitza eta betiereko osasuna dute, eta su eta eztanden azpian mantendu dira herriak aukeratuko dituen etorkizuneko legegileei itzala emateko. Sinboloa eta historia Gernikako Arbola da"


(George L. Steer, 1938)


Testimonio

"Por primera vez en su historia se ha impuesto la ley de la sangre y de la guerra de clases en Bizkaia. Creo, y la historia nos lo demostrará, que esta opresión no durará para siempre. Siglos de lucha y aventuras en los cinco violentos océanos han hecho del vasco un pueblo con una infinita reserva de fuerza, en silencio [...]. Sus raíces son muy profundas y su linaje muy antiguo, pero sus hojas son de un profundo verdor y de una virtud que se renueva cada año; reúnen la vida y la salud eternas de una sociedad sin clases, y permanecen inmóviles bajo el fuego y las explosiones para dar sombra a los futuros legisladores que serán elegidos por el pueblo. Su símbolo, y su historia, es el Árbol de Gernika".

(George L. Steer, 1938)

Gernika 1937-04-26





Memoriaren,
Bizikidetzaren eta
Giza Eskubideen
Institutua

gogora

Instituto de la Memoria,
la Convivencia
y los Derechos Humanos

Euskadi, argelana, bien común



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO